

## **MARTXOAK 8 Kartel Lehiaketa (2008)**

Martxoak 8ko XI. Kartel Lehiaketa

**2008. urteko Martxoak 8ko Kartel Lehiaketan emakumeen parte hartze sozio politikoaren garrantzia azpimarratu nahi da, Arrasaten edo/eta orokorrean ere, beraz leloa librea bada ere aipatutako gaiarekin zerikusia izan beharko du.**

- 1.- Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte.
- 2.- Kartelen neurriak gehienez 50x70 zentimetrotakoak izango dira.
- 3.- Teknika librea izango da.
- 4.- Irabazleak 900 euroko saria jasoko du (sariak % 20ko PFEZren atxikipena izango du).
- 5.- Egoki ikusten bada, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa bat egin ahal izango da.
- 6.- Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzealdean lema bat duela aurkeztu behar dira kartelak. Horrekin batera, gutunazal itxi batean lema bera eta egilearen datuak adieraziko dira.
- 7.- Kartelak 2008ko otsailaren 15a, 19:00ak baino lehen, eraman behar dira BAZera (Maisu Arano 8).
- 8.- Epaimahaiaren eraketa erabakia ematen den egun berean emango da ezagutzera.
- 9.- Saritu gabe gertatu diren lanak erakusketaren azkeneko egunetik hasi eta hogeita hamar eguneko epean jaso ahal izango dira. Epea amaitu ondoren egileek lanak jaso ez badituzte, aintzakotzat hartzen ez dituztela pentsatuko da eta Udalak horietaz libreki baliatu

ahal izango du, erreklamazio edo indemnizazio eskubiderik onartuko ez delarik.

10.- Saritzen den lana Udalaren esku gelditzen da eta kaleratzeko eskubidea izango du.

11.- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

12.- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.

**Arrasateko Udaleko Emakume Saila**

Tel: 943 79 41 39 (Emakume Txokoa)

[emakume@arrasate-mondragon.net](mailto:emakume@arrasate-mondragon.net)

[emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net](mailto:emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net)

[www.arrasate-mondragon.net](http://www.arrasate-mondragon.net)